

BAHE BETE KAFE

Bisitxa es dira momentuak

Herri mingots batean bizi gara.
Ematen diogu tragoa
eta gero ohartzen gara haren mingostasunaz.
Berandu beti, edo bai bederen
tragoa hartu edo ez erabakitzeke.

Kafe bat nahi?

Kafezko herri batean bizi gara;
ez bageneki bezala zer den kafe garratz bat
eta limoi mingots bat.
Sekula probatu ez bagenitu bezala.

Ebakira gaude ohituen,
baina hori ere sendatzen da.
Ebakia, diot.

Oraindik ez.

Denok dakigu non bizi garen:
“hemen
kafeari baqué esaten diogu,
eta bakeari
fake”.

Makinak

Mundua makinatzen ari dira:
unibertsitateetan,
tabernetan,
aireportuetan,
ospitaleetan,
24 orduz zabalik dauden lokaletan (eta hogeita bosgarrenean?)
hoteletan,
itxaron-geletan,
jatetxeetan...
Igogailuetan ere ikusi ditut makinak.

Makina bat makina ikusi ditut.

Hiru droga nagusi saltzen dituzte:
jana, edana eta emana,
azukrea, kafeina eta nikotina
gominolak, kafea eta tabakoa.

Orain geratzen zaigu erabakitzea
makinak saltzen duena
edo makina bera
zer ote den drogago.

Kafe onak

Kafe onak lagun txarrak bezalakoak dira;
usaina hobea dute zaporea baino.

Hutsetik hastea

Zerotik hastea hutsetik hastea baino errazagoa da;
zero bada,
hutsa...

Zeroren azpitik
badaude zenbakiak.
Infinitu, minus infinitura arte.
Hutsaren azpitik...

Inork ez daki zenbat den
0
zati
0.
Ez da inor jakiten saiatuko.
Huts
zati
huts, ordea,
ez daki inork
inork ba ote dakien
zenbat den.

Behin hasten hasita, hasi hutsetik.
Edo ez hasi.
Zertara etorri zara ba?

Bestela laster hasiko gara kafetegian kafe zero eskatzen.
Horrela hasi ziren zerbezekin eta Coca Colekin,
eta begira noraino iritsi garen...

Iribarre salatariz

Taberna barruko gozotasuna,
lehioak negar etengabea,
arratsaldeko betan gau,
bi farola elkarri begira,
eta kalea hotz
eta huts.

Mikel Urdangarinen kantuaren ohiartzuna altabozetan,
eta ez,
ez da ideia ona izan lehenengoa.

-Txokolate beroa txurroekin.

Orain bai.
Lehio negartiei so jarri
eta zeinen ederra den negua kanpotik ikusteko.
Umeei akuariumean nola
irribarre gozoz gustatzen zaizu ekaitza ikustea,
txokolateak zintzurra erretzen dizun bitartean,
eta kafea hotz
eta huts.

Baina azalduiezu, arren, akuariumeko umeei
marrazo horztun hori zure itsaso berean bainatzen dela
eta zoaz lanera bizkor
berandu egingo zaizu eta.

Kafesnea izotzarekin

Gogoratzen naiz zenbat gorrotatzen nituen zerbitzaria nintzenean
“kafe deskafeinatua makinakoa eta organikoa
kafea ez oso beroa baina esnea erretzen
esnea lehenengo eta kafea gero
eta esne askorekin baina ez hainbeste
baina pixka bat gehiago
baina apar apur bat gehiagorekin mesedez
eta orain kafea
ai! pixka bat pasa zara
orain plastikozko basoan izotza mesedez
ez ez baina hainbeste ez
izotz puska bakarra baina daukazun handiena
eta azukrea ez sakarina hartzen dut
ez al zara ba gogoratzen?
bueno baina gaur azukrea hartuko dut
baina hori ez morenoa
eta lasai gazte hurrengoan hobeto egingo duzu”
eskatzen zuten bezeroak.

Barruan eseri arren terrazako 20 zentimoko plusa kobratzen nien,
merezi zutelako,
eta tiketa aztertu ondoren esaten zidaten:
“lehengoan 20 zentimo gutxiago kobratu zizkidan berak”.
Eta esaten nien:
“ba hurrengoan berari eskatu”.

Han joaten ziren,
bi eskuekin kafeari ondo helduz,
mahairainoko bi pausoak elefante baten zehaztasunez emanaz.

Berehala ulertzen nuen zergatik esertzen ziren bakarrik.

Haiei esker dakit normalean ez dela komeni dena esatea.
Ez esan ez dagoenik
eta asumitu.
Aldatzeko bada ere.

Horregatik eskatzen dut beti “kafesnea izotzarekin”.
Azken batean,
noiz bihurtzen da izotza izeberg?

Baso hutsak

-Hutsa edalontzian, mesedez.

-Tori.

Ez dit ulertu;
hau erdi-betea dago.